



Iturrino Handia

Hasier Etxeberria

Niri, partikulariki, liburua ez zait gehiegi gustatu. Aurreneko 50 orrietan iruditu zait ez zekiela oso ondo nora zihoan; egileak bazekien bere asmoa zein zen, bai, baina ez zuen bukatzen ideia horren nondik norakoa erabakitzen, harik eta une jakin batean sokatik tiratzen eta ideia hori ahal bezala garatzen hasten den arte, baina modu apur bat dorpe edo lauso batez.

Irakurle gisa, une batez ere ez naiz eroso sentitu ez pertsonaiarekin ez dagokionarekin. Behin baino gehiagotan galdetzen diozu zeure buruari ea pertsonaia nagusia (eta ia bakarra) benetan existitu al zen (horra hor egilearen merituetako bat –handiena–)... Azken finean, munduan ospetsu bilakatutako lehen euskalduna ez zatekeen izango, nahiz eta lipar bateko ospea izan edo azkar eta betiko iraungi. Liburuan azaltzen diren zinezko pertsonaiek efektu hori areagotzen laguntzen dute: Orson Wells, J. Huston... Iturrino bera ere benetako pertsonaia izan daitekeelako aukera (ilusioa) ahaztu gabe, noski...

Alde horretatik, meritu hori onartu egin behar zaio Hasier Etxeberriari, hau da, pertsonaia bat ez ezik, sinesgarritasunaren barruan sar daitekeen ilusio bat sortu du –horrek beti baitu meritua–. Eta, egiatan, literatura ona hortik abiatu ohi da: sinesgarri gerta daitekeen fikzio bat sortzearen bidetik, hain zuzen (Orsol Wells-ek ere gogoko zuen publikoari ziria sartzea; adibidez, “Martiztarrek erasotzen digute” irrati-saioa...).

Azken batean, halako arte bat da: ez dena badela sinestaraztea. Aldiz, pertsonaia bera baino gehiago, pertsonaiaren biografia laburra eta hiper-errepikatua da sinesgarriena: hiru zatitan ebakitzen zintuen magoaren kutxaren asmatzaile, bi zine-zuzendari ospetsuren adiskide (haietako batek euskal herria ezagutzen zuen), bi buruko emakumearen maitale (hau jada ez da hain sinesgarria, baina tira), eta gero, halako harreman “siniestro” edo opakatu bat (eufemismo bat erabiltzeagatik) Plasma izeneko txo batekin (ia-ia “Plasta” deitu dio), pertsonaia erabat ulertzina berau...

Egia esateko, Elefante-Gizona, Bi Buruko Emakumea eta mota horretako fauna oinarritzat hartzen dituzten produktuak ez zaizkit inoiz oso erakargarriak egin. Estetika-klase horrek zinez atsekabetu egiten nau barrutik, ez-atsegina zait, eta arrazoi horrengatik apika kosta egiten zait liburuaren aldeko jarrera hartzea. Baliteke arrazoi pixka bat pertsonala izatea, bai...

Gainerakoan, teknikoki hitz eginez, nahiko nobela bakuna da; badu halako estetika kolokial bat, zenbaitetan jasangaitz samar bilakatzen dena (“dedio” ugariak, adibidez); ia-ia ez dago pertsonaia sekundariorik, hau da, Iturrino Handia kenduta, gainerako pertsonaiak ez dira inoiz agertzen benetan zehaztuta edo gehiegi pertsonalizatuta (Wells eta Huston pertsonaiak ere dagokien ospe mitikoan daude oinarrituta). Iturrino bera ere ez da oso haragizkoa, ez dago oso landuta pertsonaia bezala; baina egileak haren inguruan saretu duen “mitoak” indarra eta sinesgarritasuna ematen dizkio...

Liburua irakurtzen duzu zuzen idatzitako dagoelako, eta euskaraz irakurtzea beti gustagarria eta beharrezkoa delako, eta zorionez luzeegia ez delako. Arratsalde bat eskaintzen diozu eta... kito: euskal arnasa eman digun, zerbait irakatsi digun eta apur bat entretenitu gaituen beste liburu bat saskira. Baina, tira, literatura-produktu bezala, hortxe-hortxe dabil... Sakonera gutxiko urmael bat da (azal gaineratik ikusten zaio hondoa). Iturrino Handia baino gehiago, Iturrino Txikia izan liteke, oso erakargarriak inoiz izan ez diren donostiar galaxietan galdutako (eta mahukatik ateratako) Txantxilo moduko bat edo...

Baina liburuaren asmoak bertan dirau... egunak edota asteak igarota ere. Eta hori, oso ondo dago.